

Prezioak, kostuak eta soldatak

2012ko amaieran, prezioen bilakaera aztertzeke adierazleek goranzko zein beherazko joerak erakutsi zituzten. Alde batetik, KPIa eta BPGaren deflatoreak beren urte arteko tasak igo zituzten aurreko hiruhilekoaren aldean, batez ere zergen igoeren eraginak bultzatuta. Aitzitik, IPRIak bere gehikuntza erritmoa apaldu zuen, energiako ekoizkinen eta lan kostuen portaera onari esker.

Prezioak

Adierazi berri denez, BPGaren deflatoarea hirugarren hiruhilabeteko %0,8tik laugarren hiruhilekoko %1,3 hazi zen. Balio hori apala da oraindik eta bat dator barne merkatuak erakusten duen ahultasunarekin. Deflatoarearen igoera horretan, eragin handia izan zuen kontsumo pribatuaren deflatoreak izan zuen hiru hamarrenen igoera (%2,0tik %2,3ra igaro zen). Orobat, KPIa ere aldakuntza bera izan zuen epealdi horretan. Bat egite hori ez da harrigarria, kontuan hartzen bada bi adierazle horiek kontsumoko ondasunen prezioak neurtzen dituztela. Aitzitik, kontsumo publikoaren deflatoarea nabarmen jaitsi zen laugarren hiruhilekoan, %0,0tik %-5,4ra igarota. Beherakada hori administrazioaren soldatapekoiei Gabonetako ordainketa pagatu ez izanak eragin zuen. Beste aldetik, kapital eraketa gordinaren deflatoreak zertxobait gora egin zuen, baina oraindik %1aren oso azpitik geratu zen, %0,5ean, hain zuzen ere.


KPIari dagokionez, iazko azken hilekoetan, urte arteko aldakuntza tasa leunki beheratu zuen eta horrek bide eman zuen 2012ko batez besteko hazkundea %2,3an kokatzeko, hots, 2011koa baino zortzi hamarren beherago. Urte osoko batez bestea aurreko urtekoa baino txikiagoa izan bazen ere, azken hiruhilabeteko inflazioa (%2,8) urte osoko handiena izan zen. Gorakada horren arrazoiak artean, eskariaren presioarekin inolako loturarik ez baitauka, abuztuan petrolioaren salneurriak izan zuen garestitzea eta irailean BEZak ezagutu zuen igoera aipatu behar dira. Halaber, argindarraren prezio arautuak izan zuen igoera seinatu behar da. Hala eta guztiz ere, petrolioaren prezioaren gorakadak atzera egin zuen 2012ko azken hilekoetan eta horrek hasiera eman zion moteltzeko joerari, 2013ko lehen hilekoetara hedatu baita. Halaber, aipatu diren gainontzeko arrazoiak iragankorrak dira. Beraz, datozen hilekoetarako egin diren aurreikuspenek moteltzeko joera bat aurreratzen dute. Hain zuzen ere, irailetik aurrera BEZaren igoeraren eragina bertan behera geratuko da eta KPI indizea %2aren azpian kokatuko dela espero da. Printzipioz, 2014. urte osoan ez da langa hori gaindituko, zerga igoera gehiagorik ez badago behintzat.

Ingurunearekin alderatuta, inflazioa bi hamarren gutxiago hazi da EAEn Espainiako batez bestean baino. Diferentzia hori hezkuntzaren bilakaeran, beste erkidego batzuetan unibertsitateetako tasak gehiago hazi zirelako, eta medikuntzarenean, botiken koordainketagatik, oinarritzen da. Europako inflazioarekin alderatuta, diferentziala EAEren aurkakoa eta azken hilekoetan zabaldu egin da, 2013ko otsailean zortzi hamarrenetara iritsi arte. Horretan ere erabakigarria izan da zergen igoera eta, beraz, bi lurraldeen inflazioan ireki den tarte hori iragankorra da eta aurtengo bigarren erdian gutxituko da. Hain zuzen ere, INEk Estatu osorako estimatu duen KPI indizea zerga iraunkorretan %0,7 bakarrik igo da azken urtebetean, KPI ofiziala %2,8 hazi zen bitartean. EAErako ez dago datu baliokiderik, baina %0,7 hori baino zertxobait txikiagoa izango zela ematen du.


KPlaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioak, berriz, inflazio orokorrak bezala, gorantz egin zuen udako hilekoetatik aurrera, baina, honetan ere bestea bezala, 2012. urteko batez bestean gutxiago hazi zen 2011. urtean baino (%1,5 eta %1,8, hurrenez hurren). Iazko azken hilekoetan gertatu ziren igoerak BEZaren gorakadak eragin zituen, ekoizkin talde guztietan nabaritu zirelako, hala gorabehera handienak izaten dituztenetan, hondar inflazioan biltzen baitira, nola gainontzekoetan, azpiko inflazioaren atalak batzen baititu. Dena dela, azpiko inflazioaren balioa %2,1ean kokatu zen aurtengo otsailean, Europako Banku Zentralak prezioen egonkortasunerako erabiltzen duen erreferentziatik oso hurbil.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2011	2012	2012		2013	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazioa guztira (%100)	3,1	2,3	2,5	2,8	2,6	2,6
Azpiko inflazioa (%82,0)	1,8	1,5	1,5	2,1	2,1	1,7
- Landutako elikagaiak (%13,7)	3,8	3,3	3,5	3,7	4,1	0,6
- Industriako ondasunak (%26,9)	0,7	0,3	0,4	0,9	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%41,4)	2,0	1,7	1,6	2,5	2,4	1,0
Hondarreko inflazioa (%18,0)	9,5	6,1	7,1	6,3	4,7	0,9
- Landugabeko elikagaiak (%6,8)	1,5	2,7	2,5	3,4	3,1	0,2
- Energia (%11,2)	15,3	8,3	10,0	8,2	5,6	0,7

Iturria: INE.

Inflazioaren osagai guztiek, energiak izan ezik, goranzko joera erakutsi zuten urte amaieran. Hala ere, energia izan zen urte arteko tasa handiena jaso zuen taldea. Dena dela, talde horrek moteltzeko joera bizia erakutsi du eta otsailean %5,6an geratu da bere urte arteko tasa. Gehikuntza tasa altuak dituzten beste talde batzuk janariarekin lotuta daudenak dira, hala elikagai freskoak (%3,1) nola landutakoak (%4,1). Beste muturrean, industriako eta zerbitzuetako ondasunak batez bestea baino gutxiago garestitu ziren. Bereziki azpimarragarria da industriako ondasunen igoera apala (%0,5).

Talde berezien arabera, inflazio tasa handiena izan zuena edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituen da, otsailean %8,4 garestitu baitzen, tabakoaren salneurria oso nabarmen igo zelako. Ondoren, medikuntza (%4,8) kokatu zen, botiken garestitzea nabaritzen ari delako. Hala eta guztiz ere, talde horretako prezioen igoera askoz txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestea baino (%12,9), hemen botiken koordainketa oraindik ezarri ez delako. Hirugarren talde inflaziogileena etxebizitzarako zerbitzuak biltzen dituen da, prezioak %4,6 areagotu zituelako, nahiz eta azken aldi honetan moteltzeko joera leuna erakusten ari den. Prezioen igoera horren azpian dagoen arrazoia berogailuen, argiteriaren eta ur banaketaren gastuak biltzen dituen atalaren igoera da, erregaien eta argindarraren garestitzearen ondorioz.

Beste muturrean, komunikazioek prezioak jaisten jarraitu zuten (%-1,9) aurreko urteko epealdi beraren aldean. Halaber, jantziak eta oinetakoak (%0,0) ez dute salneurria aldatu 2012ko otsailaren aldean.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2011	2012	2012				2013
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	3,1	2,3	2,0	1,9	2,5	2,8	2,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	2,7	2,7	2,5	2,5	3,3	3,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	9,8	5,8	1,9	7,3	8,5	5,6	8,4
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,2	-0,1	0,5	0,1	0,5	0,0
Etxebizitza	7,8	5,7	4,2	5,5	6,6	6,3	4,6
Etxeko hornidura	1,5	1,1	0,3	0,4	1,3	2,5	2,9
Medikuntza	-0,6	-0,7	-2,7	-2,5	-0,7	3,2	4,8
Garraioa	7,7	4,3	5,2	3,6	4,8	3,5	2,2
Komunikazioak	-0,8	-3,4	-3,5	-3,8	-3,8	-2,4	-1,9
Aisia eta kultura	0,3	1,0	0,5	0,3	1,3	1,8	2,2
Irakaskuntza	1,3	2,8	2,1	2,8	2,9	3,3	3,3
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,0	0,9	1,0	0,9	1,3	1,2
Besteak	2,7	2,4	2,1	1,5	2,2	3,6	3,1

Iturria: INE.

Industriako prezioei dagokienez, IPRIak nabarmen moteldu zuen hazkunde erritmoa 2012ko azken zatian eta urte osoko batez besteko gehikuntza 2011koa baino txikiagoa izan zen (%1,8 eta %7,6, hurrenez hurren). Are gehiago, urte hasieran balio negatiboak jasotzera iritsi zen. Hain zuzen ere, 2013ko urtarrilean, urte arteko aldakuntza tasa %-0,2an kokatu zen. Apaltzeko joera hori batez ere osagai guztien prezioak gutxiago hazi izanaren ondorioa da, baina guztien artean energiaren beheranzko joera azpimarratu behar da, 2009. urteko amaieratik inoiz izan dituen baliorik txikienak jaso zituelako. Zehatz-mehatz, aurtengo urtarrilean, estatistika horrek estimatzen dituen energiako prezioen aldakuntza tasa %1,1ean kokatua zen, 2012ko batez bestea %8,9ra iritsi zenean.

Halaber, gainontzeko taldeek ere gehikuntza tasa apalagoak erakutsi zituzten, baita balio negatiboak ere, bitarteko ondasunek (%-0,7) eta kontsumoko ondasunek (%-1,2) egin zuten bezala. Azken kasu honetan, kontsumo iragankorreko ondasunak (%-1,7) dira atalaren jaitsiera lagundu dutenak, nahiz eta kontsumo iraunkorreko ondasunak (%0,3) ez duten balio altuegirik erakusten. Azkenik, ekipamendurako ondasunak joera laua (%0,0) erakutsi dute beren prezioen bilakaeran.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012				2013
			I	II	III	IV	Urtarrila
Indize orokorra	7,6	1,8	3,2	1,6	1,6	0,8	-0,2
Kontsumoko ondasunak	2,4	-0,3	0,3	-0,5	-0,5	-0,4	-1,2
- Kontsumo iraunkorrak	0,5	0,5	0,7	0,7	0,4	0,2	0,3
- Kontsumo iragankorrak	3,1	-0,6	0,2	-1,0	-0,9	-0,6	-1,7
Ekipamendurako ondasunak	2,1	0,9	1,4	1,2	0,8	0,1	0,0
Bitarteko ondasunak	6,2	-0,3	0,6	-0,6	-0,8	-0,2	-0,7
Energia	21,9	8,9	13,3	8,2	9,7	4,5	1,1

Iturria: Eustat.

Lan kostuak eta soldatak

Lan kostuek moteltzeko joerari eutsi zioten laugarren hiruhilekoan eta ekonomiaren egoerara egokitzen jarraitu zuten. Hain zuzen ere, kostuen gutzitzea %0,9 jaitsi zen urte arteko tasan eta bi hiruhileko kateatu dituzte urte arteko jaitsierak jasoz. Beherakada hori inkesta egiten 2000. urtean hasi zenetik inoiz izan den handiena da.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012			
			I	II	III	IV
Kostu guztiak	0,6	0,7	2,2	2,2	-0,7	-0,9
- Soldata kostuak	0,2	0,7	1,4	2,4	1,3	-2,2
- Bestelako kostuak	1,9	0,7	4,6	1,6	-6,1	3,3
Kostu osoa industrian	1,6	1,1	4,0	-0,2	-0,3	1,2
Kostu osoa eraikuntzan	2,3	-2,9	-2,6	-2,9	-3,5	-2,4
Kostu osoa zerbitzuetan	0,3	1,0	2,2	3,8	-0,6	-1,4

Iturria: INE.

Kostuen jaitsiera hori langileek kobratzen duten soldaten bilakaerak eragin zuen, %2,2 gutxitu zirelako, administrazioaren soldaten beherakadak baldintzatuta. Hala ere, bestelako kostuen

atalak, irazitaren kostua barne hartzen baitu, gehikuntza nabarmena ezagutu zuen. Eraikuntzak langile bakoitzeko kostua murrizten jarraitu zuen, baina zerbitzuek ere urte arteko jaitsierak jaso zituzten. Aitzitik, industrian %1,2 hazi ziren kostuak, bi hiruhilekoz behera egin ondoren. Lan egindako ordu bakoitzeko, kostuak %1,9 hazi ziren, baina soldaten igoera neurrizkoa dela hautematen da oraindik.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012			
			I	II	III	IV
Kostu guztiak	0,7	2,4	2,9	4,8	0,5	1,9
- Soldata kostuak	0,2	2,5	2,1	5,0	2,5	0,6
- Bestelako kostuak	2,1	2,2	5,4	4,1	-5,0	6,3
Kostu osoa industrian	-0,5	1,2	4,4	2,3	-3,4	2,8
Kostu osoa eraikuntzan	1,7	-2,1	-1,5	-1,8	-3,0	-1,9
Kostu osoa zerbitzuetan	1,2	3,2	2,6	6,4	2,2	1,9

Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenetan adostu ziren soldata igoerek beheranzko joerari jarraipena eman zioten. Aurreko urteetan sinatutako hitzarmenen batez besteko hazkundea (%2,7) urtean zehar adostutakoena (%2,0) baino altuagoa izan zen, beste urteetan ere gertatu zen bezala. Alde gutxi dago sektoreko eta enpresako hitzarmenetan adostu diren batez besteko igoeren artean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2008	2009	2010	2011	2012
Indarrean dauden hitzarmenak:	5,0	2,7	1,9	3,6	2,7
- Urtean zehar sinatutakoak	4,8	2,8	1,7	3,4	2,0
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,2	2,8	1,7	3,8	2,7
- Enpresako hitzarmenak	4,1	2,6	2,4	3,1	2,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.